

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.</i>

R 25/2015 Ebazpena

92/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak, Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau hartu du:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ:---) helbide fiskala zehaztea da, eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 92/2011 espediente-zenbakiarekin. Isaac Merino Jara jauna da haren txostengilea.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Gatazka hau 2011ko ekainaren 17an aurkeztu zen, eta egun berean sartu zen Arbitraje Batzordean, Bizkaiko Foru Aldundiko (aurrerantzean, BFA) Ogasun Saileko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen idazkiaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean, 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ ----) helbidea zuzentzea premiatuz. Izan ere, bere ustez, hori 1. UDALERRIA udalerrian (Madril) dago 2008ko martxoaren 4tik aurrera [egiaz 2010eko martxoaren 4tik gatazka agertu duen administrazioak berak aurkeztutako dokumentazioaren arabera], eta data horretara atzera eraman beharko lirateke helbide-zuzenketaren eraginak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.

2.- Jartzeko idazkitik eta aurkeztutako agirietatik, bereziki BFAREN Ogasun eta Finantza Saileko Ikuskapeneko Zuzendariordeak egindako 2011ko martxoaren 4ko txostenetik , honako datu hauek ondorioztatzen dira:

1) Erakundea, Bilboko notarioa den 1. NOTARIOA JAUNAREN aurrean baimendutako eskritura publikoaren bidez, 1992ko ekainaren 29an eratu zen, helbidea 2. UDALERRIAN (Bizkaia) zuela.

2) Erakundeak, 2010eko martxoaren 4an, kide bakarreko sozietatearen izaera hartu zuen, eta administratzaile bakarraren kargua harrez geroztik bazkide bakarra zen 1. BAZKIDEA JAUNAK, helbidea 1. UDALERRIA (Madril) udalerrian zuenak, hartu zuen.

3) Erakundeak helbidea Bilbora aldatu zuen, Ezohiko Batzar Orokorrak 2010eko maiatzaren 18an hartutako erabakiaren arabera. Erabaki hori publiko egin zen egun berean emandako eskritura publikoaren bidez, Bilboko notarioa zen 2. NOTARIOA JAUNAK baimenduta.

Helbide horretan 1. SOZIETATEA izeneko negozio-zentroa dago kokaturik.

1. ERAKUNDEAK eta aurretik esandako negozio-zentroak zerbitzuen errentamendurako kontratu bat sinatu zuten 2010eko maiatzaren 1ean, eta kontratuaren xedetzat hau hartzen du Bigarren Estipulazioan:

- Gure helbidean helbideratze sozial eta fiskala egitea.
- Faxe, posta eta paketeak jasotzea.
- Egunero posta elektronikoz ematea gutun urgenteen, ziurtatuen eta inprimaki ofizialen berri.
- Hartutako deiak eta faxak posta elektroniko bidez jakinaraztea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.</i>

- Gure helbidea haren paperetan agertzea.

4) 1. ERAKUNDEAREN kontabilitateak hirugarren batek egiten du, horrekin kontratu-harremanik ez duenak.

5) 1. ERAKUNDEA erakundeak egindako fakturak erakunde horrek 2. SOZietatea sozietatearentzat eskuratzen dituen edarien eta elikagaien salmentari buruzko produktuei dagozkie. Sozietate horren helbidea Madrilen dago, eta aurretik aipaturako erakundearen 1. BAZKIDEA JAUNA administratzaile bakarraren jabetza da.

Neurri handi batean, aipaturako fakturak edarien eta elikagaien erosketei dagozkie, eta Madrilen egindakoak dira. Haietako batzuetan ageri den helbidea Madrilgo lokal batena da (3. SOZietatea).

Halaber, 4. SOZietatearen fakturak ere badaude, eta horietan 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide gisa 1. UDALERRIA (Madril) udalerrarena da.

6) Erakundeak garaje bat du Madrilen, 2010ean eskuratuta.

7) Erakundeak bi banku-kontu ditu, eta Administratzaile Bakarrak baino ez ditu horiek erabiltzen.

8) Bezeroekin eta hornitzaileekin 1. BAZKIDEA JAUNAK baino ez du eragiketarik egiten. Jarduera hori Madriletik egiten du.

9) Kontabilitate-liburuak aztertuta, hau ondorioztatzen da:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandatutako administrazioaren amore- ematea.</i>

a) TELEFONO-KONPAINIAK Madrilgo helbide bat zehazten du fakturretan.

b) 5. SOZIJETATEA sozietatearen fakturak Madrilgo lokal bateko bidezaintza-sistemaren ondorioz jasotzen dituzte.

c) UR KONPAINIAREN fakturak Madrileko lokaleko ur-zerbitzuaren ondorioz jasotzen dituzte.

10) Erakundeak ez du kontratatutako langilerik.

3.- BFaren Ogasuneko zuzendari nagusiak 2011ko martxoaren 23an jakinarazi zion Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari erakundearen helbide fiskala ofizioz aldatzeko proposamena, 2011ko martxoaren 10ean egin; horren bidez, helbidea Bilbotik 1. UDALERRIA udalerrira (MADRIL) zuzentzeko eskatu zuen, horren ondorioak 2010eko maiatzaren 18ra eramanda.

4.- Kontzertu Ekonomikoaren 43.Bederatzi artikuluan ezarritako bi hilabeteko epea igaro zenez Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak proposamen horren gaineko adierazpenik egin gabe, BFaren Ogasuneko zuzendari nagusiak, 2011ko ekainaren 13an, gatazka hau jartzea erabaki zuen, eta 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala zuzentzeko eskatu zuen, bere ustez 1. UDALERRIAN (Madril) egon behar baitzen 2010eko maiatzaren 18tik aurrera, egun horretan eskrituratu baitzuten Bilbora egindako helbide-aldaketa. Arbitraje Batzordearen erregistroan 2011ko ekainaren 17an sartu zen.

5.- Arbitraje Batzorde honen aurrean aurkeztutako gatazka jartzeko erabakian BFaren Ikuskapeneko Zuzendariordetzaren txosten osagarria, 2011ko ekainaren 10ekoa, ere badago. Txosten horren bidez helbidea aldatzeko hasieran proposatutako atzeraeragin-eguna 2010eko martxoaren 4ra aldatu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.</i>

zuten, bazkide eta administratzaile bakarrak egun horretan eskuratu baitzituen partaidetza guztiak.

6.- Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea onartu zuen 2015eko uztailaren 16ko bilkuran, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 16.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, horren berri eman zitzaion Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari alegazioak aurkez zitzaion hilabeteko epean, jakinarazpen-egunetik zenbatuta, 2015eko irailaren 7tik, alegia.

7.- Haren alegazio-idazkia 2015eko urriaren 6an sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan, eta horren bidez Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak hauxe alegatu zuen:

1.- Madrilgo Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Bereziak eta EAeko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Ordezkaritzako Zerga Kudeaketako Sailak egindako egiaztapenak zein BFAk aurkeztutako frogak aztertuta, frogatutzat jotzen da zergapekoaren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Madrilen dagoela zentralizatuta, 1. UDALERRIAN (Madril) dagoen helbidean zehazki.

2.- Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak, ordea, uste du Bizkaiko Foru Aldundiak akats materiala egin zuela gatazka jartzeko idazkian, izan ere, helbide-aldaketa zuzentzearen ondoreen atzeraeragin-eguna 2008ko martxoaren 4an jarri zuen; eta horregatik, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren ondorio hauek BFaren 2011ko ekainaren 10eko txosten osagarriarekin bat datozenez (gatazka jartzeko idazkiarekin batera aurkeztuta), atzeraeragin-egun hori 2010eko martxoaren 4an jarri beharra dago, orduan hartu baitzuen 1. ERAKUNDEAK kide bakarreko izaera, bere partaidetza sozial guztiak administratzaile eta harrez geroztik bazkide bakarra zen 1. BAZKIDEA JAUNARI eman ondoren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.</i>

3.- Hori dela eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak BFaren nahiei amore ematea proposatzen du, betiere Arbitraje Batzordeak jotzen badu BFAk proposaturako atzeraeragin-eguna 2010eko martxoaren 4a dela.

8.- 2015eko urriaren 28ko idazkiaren bidez BFAk, espedientea aztertu ondoren, adostasuna agertu zion helbide fiskalaren zuzenketaren ondoreen atzeraeragin-eguna 2010eko martxoaren 4a izateari, egiaztatu baitzuen akats materiala egin zuela gatazka jartzeko idazkian ageri zen egunari zegokionez, ez zetorrelako bat espedientean jasotako txostenetatik ondorioztatzen denarekin.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje-prozedura honetan, honako data hauek izan behar dira kontuan:

- 2010eko martxoaren 4a: Erakundeak kide bakarreko sozietatearen izaera hartu zuen, eta administratzaile bakarraren kargua harrez geroztik bazkide bakarra zen 1. BAZKIDEA JAUNAK, helbide fiskala 1. UDALERRIA (Madril) udalerrian zuenak, hartu zuen.

- 2010eko maiatzaren 18a: Egun honetan eskritura publiko bilakatu zen helbidea 2. UDALERRIA udalerritik (Bizkaia) Bilbora (Bizkaia) aldatzeko Batzar Orokorren erabakia, besteak beste.

- 2011ko martxoaren 4a: Zentsu Fiskalen Atalak 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskalari buruzko txostena egin zuen Ogasun eta Finantza Sailaren Ikuskapeneko Zuzendariordeak, eta horren bitartez hainbat datu egiaztatu zituen eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari helbidea zuzentzeko eskaera egiteko eskatu zuten.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandatutako administrazioaren amore- ematea.</i>

- 2011ko martxoaren 23a: BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion 2011ko martxoaren 10ean igorritako erakundearen helbide fiskalaren ofiziozko aldaketa-proposamena. Proposamen horrek ez zuen erantzunik jaso.

- 2011ko ekainaren 17a: Arbitraje Batzordearen erregistroan ekainaren 13ko idazkia sartu zen. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka jarri zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, erakundearen helbide fiskalaren zuzenketa eskatzeko.

- 2015eko uztailaren 16a: Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea onartzea erabaki zuen, espedientea aurrez aurre dauden Administrazioei eta erakunde interesdunari aurkeztuta. Erabaki hori irailaren 7an jakinarazi zitzaion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari alegazioak aurkez zitzaion.

- 2015eko urriaren 6a: Arbitraje Batzorde honen erregistroan sartu zen aurreko urriaren 2ko alegazio-idazkia. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren zuzendari nagusiak, horren bidez, erabaki zuen BFAk jarritako 92/2011 gatazkari amore ematea, erakundearen helbide fiskala 1. UDALERRIAN (Madril) zegoela onartuta, baina Arbitraje Batzordeak jotzen badu BFAk proposatutako atzeraeragin-eguna 2010eko martxoaren 4a dela bakarrik.

- 2015eko urriaren 28a: Egun horretan BFAk erantzun zuen, espedientea aztertuta, ados dagoela 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskalaren zuzenketa ondoan atzeraeragin-eguna 2010eko martxoaren 4a izatearekin, izan ere, jakin badaki gatazka jartzeko idazkian akats materiala egin zuela proposatutako atzeraeragin-egunari zegokionez, hori ez baitzatorren bat espedientean dauden txostenetatik ondorioztatzen denarekin.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandatutako administrazioaren amore- ematea.</i>

2.- Amore ematearen figura 30/1992 Legean aurreikusita ez badago ere (horri lotzen zaio Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua, jarduteko araubidearekin zerikusia duen guztirako), atzera egitea aurreikusten da, prozedura amaitzeko modu bezala (Herri Administrazioen araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 90. eta 91. artikulua). Batzordeak aplikatu du dagoeneko modu hori, gatazka jasandako Administrazioak Administrazio sustatzailearen uzia zehazki konpondu zuen prozeduretan (hala nola, abenduaren 20ko R 3/2010 Ebazpena, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko R 16/2011 Ebazpena, 25/2010 espedientea; urriaren 29ko R 14/2012 Ebazpena, 24/2012 espedientea eta abenduaren 19ko R 8/2014 Ebazpena, 90/2011 eta 96/2011 pilatutako espedienteak; martxoaren 2ko R 4/2015 Ebazpena, 20/2012 espedientea, eta 2015eko uztailaren 16ko R 13/2015 Ebazpena, 16/2014 espedientea). Antzeko arrazoiak direla eta, honetan ere hori aplikatu behar dugu, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak 2015eko urriaren 2an erabakitako Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako gatazkari egindako amore-ematea ikusita, eta BFaren urriaren 28ko erabakia, zeinaren bidez helbidea aldatzearen ondoreen atzeraeragin-egunarekin ados agertu zen, ikusita.

3.- Baina Arbitraje Batzordeak espedienteak eskainitako gai guztiak konpondu behar dituzenez, alderdiek proposatu edo ez (Ekonomia Itunaren 67. artikulua), amore-ematearen ondorioz gatazka honen amaieraren inguruan aurretik doan hitzarmenarekin batera, komenigarria da kontsiderazio gehigarri bat egitea, orain amaitzen den prozeduraren garapenaren inguruan.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

### **HONAKO HAU ERABAKI DU:**



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
92/2011	R25/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala. Demandaturako administrazioaren amore- ematea.

1.- 92/2011 gatazka amaitzea, 2015eko urriaren 2an erabakitako Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren amore-ematearen ondorioz.

2.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEA erakundeari jakinaraztea.